



# Euskal Turismoaren Txostena Informe del Turismo Vasco

TURISMO-MUGIMENDUAK  
EUSKADIN  
FAMILITUR 2010

LOS MOVIMIENTOS  
TURISTICOS  
EN EL PAIS VASCO  
FAMILITUR 2010



Espainolen Turismo Mugimenduen estatistikak (Familitur) Estatuan egindako joan etorriak aztertzen ditu; horien artean, Euskaditik edo Euskadira egindakoak ere aztertzen dira

*La estadística Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) se centra en los viajes realizados por los residentes en el Estado y permite un análisis por CC.AA.*

## Familiturek erreferentzia bezala erabili dituen Autonomia-erkidegoak

### Las CC.AA. ámbito de referencia de Familitur

1999. urtetik Azterlan Turistikoen Institutuak bere gain hartu du Espainolen Turismo Mugimenduen estatistika (Familitur) lantzeko ardura. Aipatu estatistika Estatuko biztanleen turismo portaera ezagutzeko oinarritzko iturri estatistikoa da, eta Estatuko autonomia erkidegoei buruzko informazioa eskaintzen da bertan.

Estatistikaren xedea espainolek egindako bidaiak dira, Estatuaren barruan egindakoak eta atzerrira egindakoak, beti ere, edozein arrazoi delarik medio eta aukeratutako ostatu mota edozein delarik, bizi diren lekutik kanpo gutxienez gau bat igarotzen badute. Zentzu horretan, hotelak, landa etxeak eta kanpinak kontuan hartzeaz gain –Eustat eta INE erakundeek egiten duten bezala–, familia/lagunen etxeak, jabetzako bigarren etxebizitzak, alokatutako etxebizitzak, eta abar ere barne hartu dira.

Bidaiarien fluxuei buruzko datu kuantitatiboak eskaintzeaz gain autonomia erkidego batetik bestera egiten diren bidaiak eta atzerrira egiten direnak-, Familitur-ek bidaien ezaugarriei buruzko datuak ere eskaintzen ditu (iraupena, arazoia, ostatu mota, eta abar). Autonomia erkidegoen arteko fluxuak barne hartu direnez, ikuspegi bikoitza erabil daiteke azterketa egiteko: bidaiariak ematen dituen merkatu gisa eta bidaiariak hatzen dituen merkatu gisa, hain zuzen ere.


- 1. Bidaiariak ematen dituen merkatu bezala.** Kasu honetan, bidaiariak bizi diren lekua da aldatzen den datua. Euskadiren kasuan, euskal herritarrek bidaiatzeko izandako portaera aztertu da: egindako bidaiak, nora egin diren, ostatu mota, bidaiaria egiteko modua, eta abar.
- 2. Bidaiariak hartzen dituen merkatu bezala.** Estatuko autonomia erkidego guztietako bidaiariak erakartzen dituen merkatu bezala. Kasu honetan, Euskadik izan duen portaera turistikoa aztertu da: etorritako bidaiariak, jatorria, bidaiatzeko garraio-bidea, ostatu mota, eta abar.

*La estadística Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur), que realiza el Instituto de Estudios Turísticos, es la fuente estadística básica para el análisis del comportamiento turístico de los residentes en el Estado y ofrece desde 1999, información desagregada de las CC.AA.*

*Esta estadística se centra en los viajes, entendiéndolo por tal la realización de, al menos, una pernoctación fuera del lugar habitual de residencia, sea cual sea el motivo y el tipo de alojamiento utilizado, es decir no sólo hoteles, casas rurales y campings como, por ejemplo, las estadísticas del Eustat o Ine, sino también casas de familiares y amigos, segunda vivienda en propiedad, alquiler de vivienda, etc.*

*Familitur ofrece datos cuantitativos sobre los flujos de viajeros entre las distintas CC.AA. y hacia el extranjero así como las características de estos desplazamientos (tipo de viaje, duración, motivo, alojamiento, etc.). Al incluir los flujos entre CC.AA. es posible hacer un análisis desde la doble perspectiva de mercado emisor y mercado destino.*

- 1. Como mercado emisor de viajeros** la información se centra en los viajes realizados por los ciudadanos residentes en cada CC.AA. Referido a Euskadi, se trata del comportamiento viajero de la ciudadanía vasca: cuántos viajan, quiénes son, tipo de viaje realizado, motivo, destino, alojamiento, cómo se desplazan, etc.
- 2. Como mercado destino** la información se centra en los viajes que recibe cada CC.AA. por parte de los residentes en el Estado. En este caso se mide la importancia de Euskadi como destino turístico en el conjunto del Estado a través del flujo de viajeros recibidos, de dónde son, cómo vienen, dónde se alojan, etc.



## Definizio nagusiak

### Principales definiciones

Irakurleak irakurriko duena hobeto ulertzeko, datuak aztertzeko orduan kontuan hartu diren aldagai nagusien definizioak idatzi dira jarraian; honakoak dira, hortaz, Espainolan Turismo Mugimenduen estatistikak berak emandako definizio nagusiak:

**Bidaia:** ohiko ingurunetik kanpora egiten den edozein motatako joan etorria, baldin eta gutxienez gau bat kanpoan igarotzen bada.

**Txangoa:** ohiko ingurunetik kanpora egiten den edozein motatako joan etorria, kanpoan gaurik igaro gabe.

**Gaua igarotzea:** bidaiari batek ostatu kolektibo batean edo establezimendu turistiko batean edo pribatu batean igarotzen duen edo erregistratzen duen gau bakoitza.

**Iraupen laburra:** kanpoan igarotako gau kopurua 1-3 artekoa denean.

**Iraupen luzea:** kanpoan igarotako gauak lau edo gehiago direnean.

**Bigarren bizilekua:** familiak ohiko bizilekuaz gain erabiltzen duen beste edozein bizileku, familia bizi den udalerritik kanpo.

**Bidaiak guztira:** bidaia mota guztiak dira. Denboraldiko bidaiak, zubietan egiten direnak, asteburuetako bidaiak, aisialdiko bidaiak, lanak eragindako bidaiak, ikasketek eragindakoak, eta beste arrazoi batzuk eragindako bidaiak bereiz daitezke.

*A fin de facilitar la comprensión del lector se ofrecen, a continuación, las definiciones de las principales variables incluidas en el análisis de los datos, según las recoge la propia Estadística Movimientos Turísticos de los Españoles:*

**Viaje:** cualquier desplazamiento fuera del entorno habitual con al menos una pernoctación.

**Excursión:** cualquier desplazamiento fuera del entorno habitual pero sin pernoctación.

**Pernoctación:** cada una de las noches que un viajero permanece o está registrado en un establecimiento de alojamiento colectivo o turístico o privado.

**Corta duración:** cuando el número de pernoctaciones es de 1 a 3 noches.

**Larga duración:** cuando el número de pernoctaciones es igual o superior a cuatro noches.

**Segunda residencia:** cualquier vivienda en propiedad, distinta de la principal y ubicada fuera del municipio de residencia, a la que el hogar puede acceder para pernoctar.

**Viajes totales:** todos los tipos de viajes. Se clasifican en viajes de temporada, puente, fin de semana, otros viajes de ocio, de trabajo, estudio, otros motivos.



2010ean Estatuan bizi diren pertsonak 162,2 milioi bidai egin dituzte eta horietatik 8,4 milioi Euskadiko Autonomia Erkidegoko biztanleek egindako bidaiak dira. Aipatutako bidaiak kontuan hartuta, % 5,2ko kuota lortu da.

*De los 162,2 millones de viajes realizados en 2010 por los residentes en el Estado, 8,4 millones correspondieron a residentes en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Esta actividad viajera le otorga una cuota del 5,2%.*

## Euskal herritarren bidaiak

### La actividad viajera de los ciudadanos vascos

**Euskal Herriaren garrantzia bidaiatzen duten biztanleei dagokienez**

**Importancia del País Vasco como CC.AA. emisora**

Espainolen Turismo Mugimenduen Estatistikaren (Familitur) arabera, 2010ean Estatuko biztanleek 162,2 milioi bidai eta 762,1 milioi gaualdi egin dituzte. 2009ko datuekin alderatuz, -% 5,5eko murrizketa egon da, hortaz, 2007tik bidaiak ezagututako etengabeko gorakada eten egin da, eta gaualdien kasuan -% 3,7ko murrizketa ezagutu da.

Bidaiariak bizi diren autonomia-erki-degoa kontuan hartuta, bidaien erdia biztanle gehien dituzten hiru autonomia-erkidegoetako biztanleek egin dituzte. Autonomia-erkidego horiek Madril (% 18,4), Katalunia (% 16,4) eta Andaluzia (% 15) dira. Hiru horien atzetik dago, portzentaje zerbait baxuago batekin, Valentziako Erkidegoa (% 10).

Aipatutako lau erkidego horien atzetik Gaztela eta Leon (% 7) eta EAE (% 5,2) kokatu dira eta bi erkidego horietan metatu dira bidai guztien % 5-7. Hain zuzen, azken bi erkidego horietako biztanleek 8,47 milioi bidai eta 43,5 gaualdi egin dituzte 2010ean, eta, Estatuan ez bezala, +% 2,3 hobetu dute 2009an erregistratutako kopurua, eta azken urteetako bilakaera negatiboa etetea lortu dute, gainera.


*De acuerdo a la Estadística Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur), los residentes en el Estado realizaron en 2010 un total de 162,2 millones de viajes y 762,1 millones de pernoctaciones. Respecto a 2009, la cifra de viajes se reduce en un -5,5% por lo que se rompe la tendencia creciente que venían experimentando los viajes desde 2007 y también bajan un -3,7% las pernoctaciones.*

*Por CC.AA. de residencia del viajero, la mitad de los viajes tuvieron su origen en las tres Comunidades con más población, como son Madrid (18,4%), Cataluña (16,4%) y Andalucía (15%). A esta tres les sigue, ya a cierta distancia, la Comunidad Valenciana (10%).*

*Tras estas cuatro Comunidades aparecen dos cuya actividad representa entre el 5%-7% del total de los viajes realizados y que son Castilla-León (7%) y el País Vasco (5,2%) cuyos residentes han realizado en 2010, 8,47 millones de viaje y 43,5 millones de pernoctaciones que, a diferencia del Estado, mejoran un +2,3% la cifra de 2009 y rompen la evolución negativa de los últimos años.*

Euskadiren garrantzia egindako bidaien arabera. 2010. (%)  
Importancia de Euskadi según viajes realizados. 2010 (%)

		%
Andalucía	4	15
Aragón	2	3,5
Asturias	1	3
Baleares	1	1,4
Canarias	1	3
Cantabria	1	1,1
Castilla-La Mancha	2	3,9
Castilla y León	3	7,1
Cataluña	4	16,4
Comunidad Valenciana	3	9,6
Extremadura	1	2,6
Galicia	2	4,6
Madrid	4	18,4
Murcia	1	2,5
Navarra	1	1,6
Euskal AE/C.A. de Euskadi	3	5,2
La Rioja	1	0,8



Estatuan egindako bidaien eta gau-kopuruaren banaketa bidaiaria bizi den autonomia-erkidegoaren arabera. 2010. (%)

Distribución de los viajes y pernoctaciones realizados en el Estado según CC.AA. de residencia. 2010 (%)

	Estatua/Estado				
	Biztanleriaren % Población	Bidaiak/ Viajes		Gau-kopurua/ Pernoctaciones	
Egindakoak guztira/Total realizados	100,0	162.213.918	100,0	762.124.291	100,0
Banaketa bidaiaria bizi den autonomia-erkidegoaren arabera (%): Distribución según CC. de residencia (%):					
Andaluzia/ Andalucía	15,4	24.407.291	15,0	105.034.071	13,8
Aragoi/ Aragón	3,2	5.671.335	3,5	24.703.010	3,2
Asturias/ Asturias	2,5	4.904.131	3,0	20.770.289	2,7
Balearrak/ Baleares	2,1	2.213.969	1,4	14.063.534	1,8
Kanariak/ Canarias	3,6	4.866.281	3,0	25.407.772	3,3
Kantabria/ Cantabria	1,1	1.746.299	1,1	7.164.182	0,9
Gaztela-Mantxa/ Castilla la Mancha	4,2	6.342.896	3,9	27.464.611	3,6
Gaztela eta Leon/ Castilla y León	5,8	11.471.279	7,1	49.371.590	6,5
Katalunia/ Cataluña	17,2	26.666.677	16,4	122.944.968	16,1
Valentziako Erkidegoa/ Com. Valenciana	10,3	15.565.100	9,6	72.732.184	9,5
Extremadura/ Extremadura	2,2	4.215.951	2,6	19.395.622	2,5
Galizia/ Galicia	4,3	7.524.182	4,6	32.202.332	4,2
Madril/ Madrid	17,1	29.922.112	18,4	159.124.155	20,9
Murtzia/ Murcia	2,7	4.052.491	2,5	19.446.530	2,6
Nafarroa/ Navarra	1,6	2.568.833	1,6	11.408.084	1,5
Euskadi	5,6	8.465.478	5,2	43.498.992	5,7
Errioxa/ La Rioja	0,7	1.231.850	0,8	5.414.393	0,7
Ceuta eta Melilla/Ceuta y Melilla	0,3	377.761	0,2	1.977.971	0,3

Iturria/Fuente: INE e Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). 2010.

Bidaiatzea EAEn nahiko hedatuta dagoen jarduera bat da, eta are gehiago beste autonomia-erkidego batzuekin alderatzen bada. 2010ean Estatuko biztanleen % 54k egin dute bidai bat eta portzentajea % 65koa da Euskadin, ondorioz, Euskadiko biztanleak dira guztietan bidai gehien egiten dituztenak, madrildarren atzetik (% 67).

Bidaien portzentajeak gora egiten du oporraldietan. Portzentaje altuenak abuztuan (% 42) eta apirilean (% 33), Aste Santuarekin, erregistratu dira. Hain zuzen ere, hilabete horietan are nabarmenago geratzen da Euskadiko biztanleek bidaiatzeko duten ohitura, Estatukoena baino handiagoa dela (%30 eta % 20 dira, hurrenez hurren, batez bestekoak).


*Realizar viajes es una actividad bastante extendida en el País Vasco y más si se compara con otras CC.AA. Si en 2010 en el Estado realizaron algún viaje el 54% de los residentes, en Euskadi lo hicieron el 65%, lo que les convierte en los más viajeros tras los madrileños (67%).*

*El índice de realización aumenta en los períodos vacacionales, con máximos en Agosto (42%) y Abril con Semana Santa (33%), meses en los que se hace más evidente la mayor costumbre de viajar de los residentes en Euskadi respecto a la media estatal (30% y 20%, respectivamente).*

## Euskal herritar bidaiarien ezaugarriak


### Características de la población viajera vasca

Turisten duten pertsonen proportzioa. Euskadi eta inguruko Autonomia Erkidegoak. 2010  
Proporción de personas turistas. Euskadi y CC.AA. del entorno próximo. 2010



Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) I.E.T.2010.

Turistak: bidaien indizea hilabeteka. 2010 (%). Euskadi eta Estatu  
 Personas turistas: Índice de realización de viajes según meses. 2010 (%). Euskadi y Estado



Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familiar) I.E.T.2010.

Adin-tarteen arabera, euskal bidaiarien ia heren batek 25 eta 44 urte arteko adina dute eta % 31k 45-64 urtekoa. 25 urtetik beherako gazteak dira bidaiarien % 23,6, eta % 9k 64 urte baino gehiago dituzte. Horrenbestez, 37 urtekoa da Euskadin bizi diren bidaiarien batez besteko adina.

Por intervalos de edad, casi un tercio de los viajeros vascos tienen entre 25 y 44 años y otro 31% entre 45-64 años. Los jóvenes menores de 25 años representan el 23,6% de los viajeros mientras otro 9% son mayores de 64. Resulta una edad media del viajero residente en Euskadi de 37 años.



Estatuarekin alderatuz, Euskadin bidaiari gazte gutxiago dago, eta gutxiago dira, halaber, adineko bidaiariak, hortaz, bidai gehiago metatzen dira erdiko adin-tarteetan (% 64, % 61en parean).

Respecto al Estado, en Euskadi hay menos viajeros jóvenes y también menos mayores por lo que presenta una concentración algo superior en los intervalos centrales (64% frente a 61%).

Sexua kontuan hartuta, banaketa nahiko orekatua da, nahiz eta emakumezkoak diren garaile (% 51), gutxigatik bada ere.

Por sexos, la distribución es bastante equilibrada aunque con una pequeña ventaja femenina (51%).

Turistak: Banaketa adinaren eta sexuaren arabera. 2010 (%). Euskadi eta Estatu  
 Personas turistas: Distribución según edad y sexo. 2010 (%). Euskadi y Estado




Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familiar) I.E.T.2010.

## Bigarren etxebizitza bat erabiltzeko aukera euskal herritarren kasuan

### El acceso de los hogares vascos a una segunda vivienda

2. bizilekua duten familiak eta ez dutenak. 2010. (%). Euskadi eta Estatua  
Hogares según tengan o no acceso a 2ª residencia. 2010 (%). Euskadi y Estado



Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) I.E.T.2010.

Euskal familien % 21k dute beren jabetzako bigarren bizileku bat erabiltzeko aukera.

*El 21% de los hogares vascos tienen acceso a una vivienda de segunda residencia en propiedad.*

Familitur Estatistikaren arabera, bigarren bizilekua, ohiko bizilekuaz gain pertsona batek bizi den udalerritik kanpo erabiltzen duen beste edozein bizileku da.

Definizio horren arabera, euskal familien % 25ek dute bigarren bizileku bat erabiltzeko aukera, eta % 75ek ez dute horrelako aukerarik. Estatuko indizea (% 20,8) gainditzen du EAEkoak.

Norberaren jabetzako bigarren bizileku bat erabiltzeko aukera kontuan hartuta, bestalde, euskal familien % 24,8k aitortu dute aukera hori dutela, hau da, bigarren bizileku bat erabiltzeko aukera dutela aitortu dutenen % 99k.

Bigarren bizilekuaren kokapenari dagokionez, % 78k adierazi dute Euskadiko autonomia-erkidegoa ez beste erkidego batean dagoela.


La Estadística Familitur define la segunda residencia como cualquier vivienda distinta de la principal, y ubicada fuera del municipio de residencia, a la que el hogar puede acceder para pernoctar.

Según esta definición el 25% de los hogares vascos tienen acceso a una segunda vivienda mientras el 75% no lo tiene. Resulta un índice de acceso superior al estatal (20,8%).

Si se restringe el acceso a un acceso en propiedad, entonces el porcentaje de hogares vascos que reconocen tal circunstancia es del 24,8%, es decir el 99% de los que habían reconocido tener acceso.

Respecto a la ubicación de esta segunda vivienda, en el 78% de los casos se trata de una vivienda ubicada en una CC.AA. diferente a la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Bigarren etxebizitzaren jabetza indizea eta kokapena. 2010. (%). Euskadi eta Estatua  
Índice de propiedad de la segunda residencia y ubicación de la misma. 2010 (%). Euskadi y Estado



Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) I.E.T. 2010.

## Bidaien banaketa bidaia-motaren arabera

### Distribución de los viajes según tipo

Egindako bidaien banaketa bidaia-motaren arabera. 2009-2010. (%). Euskadi eta Estatu

Distribución de los viajes realizados según tipo de viaje. 2009-2010 (%). Euskadi y Estado

Bidaia-mota/ Tipo de viaje	Egindako bidaiak bizi den lekuaren arabera/ Viajes realizados por residentes en:				Euskadiren kuota/ Cuota de Euskadi 2010
	Euskadi		Estatua/Estado		
	2009	2010	2009	2010	
	Bidaiak/Viajes				
<b>GUZTIRA/ TOTAL</b>	<b>8.276.987</b>	<b>8.465.478</b>	<b>171.719.579</b>	<b>162.213.918</b>	<b>5,3</b>
Zubiak/Puentes	4,3	2,8	4,1	3,3	4,5
Aisialdiko bestelako bidaiak/Otros viajes ocio	6,7	7,0	4,2	4,9	7,5
Asteburua/Fin de semana	44,4	53,2	48,3	49,4	5,6
Lana/Trabajo	2,1	*	2,1	1,8	—
Ikasketak/Estudios	*	*	0,5	0,6	—
Ikasketekin erlazionatutakoak/Recurrentes estudios**	4,7	2,9	5,0	4,8	3,2
Familia/lagunak bisitatzea/Visita familia/amigos	3,4	4,9	3,5	5,0	5,3
Lanarekin erlazionatutakoak/Recurrentes trabajo**	9,4	3,9	13,0	8,5	2,4
Udako oporrak/Vacaciones de verano	16,2	15,8	12,2	13,1	6,3
Gabonetako oporrak/Vacaciones Navidad	0,0	2,0	0,0	2,4	4,4
Aste Santuko oporrak/Vacaciones Semana Santa	1,9	3,6	2,6	2,9	6,6
Hainbat/Otros	5,1	4,0	3,4	3,5	—

\* Lagin ez esanguratsua/muestra no significativa.

\*\* Bidaia errepikariak izan ohi dira ikasleek eta/edo langileek egiten dituztenak. Astelehenerik ostiralera bidaiatzen dute bizi diren udalerrikanpora/Viajes recurrentes son los realizados por estudiantes y/o trabajadores que viajan de lunes a viernes a un municipio distinto al de residencia.

Iturria/Fuente: Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur).2009-2010.

Euskal herritarrek gehien egiten duten bidaia asteburuko bidaia da. Bidai guztien % 53 dira.


*El viaje que más realizan los vascos es el viaje de fin de semana. Representa un 53% de los realizados.*

Familitur Estatistikaren arabera, bidai mota desberdinak definitzeko kontuan hartzen da aisialdiak eta oporrek irauten duten denbora (asteburua, zubiak, udako oporrak, Aste Santua edo Gabonak) edo bidaiatzeko arrazoiak (ikasketak, lana, senideak eta lagunak bisitatzea).

Guztira 12 bidai mota bereizten dira, eta bai Euskadin bai Estatuan, asteburuko bidaiak dira ugariak. Hain zuzen ere, ostiraletan edo larunbatean gaur egia ohiko bizilekutik kanpo igarotzen da asteburuko bidaietan eta ostiraletik astelehenera bitartean irauten dute, gehenez ere. EAEn kasuan, egindako bidai guztien % 53,2 dira, eta zubietan egindako bidaiak barne hartuta, % 2,8 gehiago dira.

La definición del tipo de viaje según la Estadística Familitur viene marcada bien por la dimensión temporal del ocio y las vacaciones (fin de semana, puentes, vacaciones de verano, de semana santa o de navidad) o bien por la dimensión de los motivos (estudio, trabajo, visita a familiares y amigos).

En total se diferencian 12 tipos de viajes y tanto en Euskadi como en el Estado el más numeroso es el denominado viaje de fin de semana, definido como aquel viaje con al menos una pernoctación en viernes o en sábado y con una duración máxima de viernes a lunes. En el País Vasco representa el 53,2% de todos los realizados a los que se pueden añadir los puentes, que suponen otro 2,8%.







Kopuru absolutuetan, euskal biztanleek 4,74 milioi bidai egin zituzten 2010ean asteburuetan eta zubietan, eta kopuru hori 2009koa (4 milioi) baino +% 17,6 altuagoa da. Definizioak berak adierazten duen moduan, bidai laburrak dira eta ez dute agerpen handiegia erregistratutako gaualdi kopuruan (% 22).

Bigarren bidai mota ohikoena udako oporretan egiten dena da (% 15,8). Bidai mota hau da garrantzitsuen gaualdi dagokienez, izan ere, urtean egindako 43,5 milioi gaualdien artetik 19,2 milioi (% 44,3), udako oporretan erregistratu dira.

Udako oporretan lortutako indizea (% 44,3) Estatuko bigarren altuena da, madrildarrek lortutakoaren ondoren (% 48). Euskaldunen ondoren daude murtziarrak (% 44,1) eta katalanak (% 41).

*En números absolutos, los residentes vascos realizaron, en 2010, 4,74 millones de desplazamientos de fin de semana y puentes, cifra un +17,6% superior a la de 2009 (4 millones). Por su propia definición son viajes cortos con menor incidencia en las pernoctaciones (22%).*


*El segundo tipo de viaje más frecuente es el de vacaciones de verano (15,8%) pero es el más importante en pernoctaciones, ya que de los 43,5 millones anuales realizadas, 19,2 millones (44,3%) se hacen en vacaciones de verano.*

*Este índice de estacionalidad estival (44,3%) es el segundo más alto del Estado tras el de los madrileños (48%). Tras los vascos, aparecen los murcianos (44,1%) y catalanes (41%).*

EAEko biztanleek urtean egindako gaualdiak Estatuko guztizkoaren % 5,7 dira, baina, oporretan egindakoak kontuan hartuta, % 6,6koa da euskal kuota.

*Las pernoctaciones anuales realizadas por los residentes vascos suponen un 5,7% del total estatal pero respecto a las realizadas en vacaciones de verano, la cuota vasca es el 6,6%.*

Bidaien banaketa bidaia-motaren arabera. 2010. (%). Euskadi eta Estatua  
Distribución de los viajes realizados según tipo. 2010 (%). Euskadi y Estado



Norakoa kontuan hartuta, Familitur Estatistikak lehen bereizketa bat egiten du: Estatuko autonomia-erkidego batera egiten diren bidaiak (barruko bidaiak) eta atzerrira egiten direnak bereizten ditu.

2010ean euskal herritarren bidaien % 92,5 barruko bidaiak izan dira eta gainontzeko % 7,5 atzerrira egindako bidaiak. Segmentazioa nahiko egonkorra da eta Estatukoaren antzekoa ere bada, baina, Estatuaren kasuan, 2010ean gorakada txiki bat ezagutu dute atzerrira egindako bidaiak eta Euskadin erregistratukoak (% 7,5) baino gehiago izan dira (% 8,4).

Autonomia-erkidegoen arabera, euskal herritarrek egindako barruko bidaien ia erdia hiru autonomia-erkidegotara egindako bidaiak dira. Kantabria (% 17,6), Euskadi bera (% 16,8) eta Gaztela eta Leon (% 15,0) dira erkidego horiek.

2009ko datuekin alderatuz, inguruko autonomia-erkidegoek, hala nola Kantabriak, Nafarroak eta Errioxak, norako gisa zuten agerpena indartu dute: 2009an bidaien % 25 bertara egin ziren bitartean, % 34koa izan da portzentajea 2010ean. Gaztela eta Leonen eta Euskadik, aitzitik, agerpen txikiagoa izan dute.

*Considerando el destino, la Estadística Familitur segmenta primero los viajes según éstos se dirijan a alguna CC.AA. del Estado (viajes internos) o al extranjero.*

*En 2010, el 92,5% de los viajes de los vascos han sido viajes internos y el 7,5% restante al extranjero. Es una segmentación bastante estable y similar también a la del Estado pero en éste sí se aprecia en 2010 un ligero aumento de los viajes al extranjero, cuya importancia (8,4%) supera a la que tienen en Euskadi (7,5%).*

*Por CC.AA. concretas casi la mitad de los viajes internos de los vascos tienen como destino tres CC.AA. Son Cantabria (17,6%), la propia Euskadi (16,8%) y Castilla y León (15,0%).*

*Respecto a 2009 se observa que CC.AA. próximas como Cantabria, Navarra y La Rioja han reforzado su condición de destino y pasan de concentrar el 25% de los viajes en 2009 a casi el 34% mientras que Castilla y León y Euskadi disminuyen su atracción.*

## Euskal herritarrek egindako turismo-bidaien norakoa

### Destino de los viajes realizados por los ciudadanos vascos

Bidaien % 92,5 barruko bidaiak dira, baina Estatuaren agerpena murriztu egin da udako oporrak igartzeko egiten diren bidaiak erreparatzen bazaie (% 84), eta agerpena handiagoa izan da, ordea, asteburuko bidaiak erreparatzen bazaie (% 98).

*El 92,5% de los viajes son viajes internos pero el Estado pierde relevancia como destino en los viajes de vacaciones de verano (84%) para aumentar en los de fin de semana (98%).*

Egindako bidaien banaketa aukeraturako autonomia-erkidegoaren arabera. 2009-2010. (%). Euskadi eta Estatu


*Distribución de los viajes realizados según CC.AA. de destino. 2009-2010 (%). Euskadi y Estado*

	Egindako bidaiak bizi den lekuaren arabera Viajes realizados por residentes en:			
	Euskadi		Estatu/Estado	
	2009	2010	2009	2010
<b>Egindakoak guztira/Total realizados</b>	<b>8.276.987</b>	<b>8.465.478</b>	<b>171.719.579</b>	<b>162.213.918</b>
Barruko turismoa (E.ren barruan) (%) / Turismo interno (dentro del E) (%)	92,1	92,5	92,5	91,6
Kanpoko turismoa (atzerrira) (%) / Turismo emisor (al extranjero) (%)	7,9	7,5	7,5	8,4
<b>Banaketa aukeraturako autonomia-erkidegoaren arabera (%) / Distribución según CC.AA. de destino (%):</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Andaluzia/Andalucía	2,8	2,7	17,0	16,4
Aragoi/Aragón	2,4	2,1	4,2	3,7
Asturias/Asturias	2,8	2,5	2,6	2,8
Balearrak/Baleares	*	*	1,6	1,7
Kanaria/Canarias	1,6	1,5	3,0	3,1
Kantabria/Cantabria	13,6	17,6	2,0	2,3
Gaztela-Mantxa/Castilla la Mancha	*	*	6,9	7,0
Gaztela eta Leon/Castilla y León	19,4	15,0	9,8	10,7
Katalunia/Cataluña	4,8	4,5	13,4	13,0
Valentziako Erkidegoa/Com. Valenciana	4,0	4,3	10,6	9,7
Extremadura/ Extremadura	1,5	*	2,9	2,9
Galizia/Galicia	2,6	2,6	5,1	5,0
Madril/Madrid	4,3	4,3	6,4	6,2
Murtzia/Murcia	*	*	2,1	2,2
Nafarroa/ Navarra	5,8	8,1	1,8	1,5
Euskadi	18,8	16,8	2,1	2,2
Errioxa/La Rioja	6,0	8,0	0,9	1,0
Ceuta eta Melilla/Ceuta y Melilla	*	*	0,1	0,1
Autonomia Erkidego isolatua delako eraginik gabe/Sin significación como CC.AA. aislada	1,7	2,5	-	-

\* Lagin ez esanguratsua/muestra no significativa.

Iturria/Fuente: Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). 2009-2010

Egindako bidaien banaketa norakoaren arabera. 2010. (%). Euskadi eta Estatu  
 Distribución de los viajes realizados según destino. 2010 (%). Euskadi y Estado



Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) I.E.T.2010.

Bidaia errepikariak dira ikasleek eta/edo langileek egiten dituztenak: astelehenetik ostiralera bidaiatzen dute bizi diren udalerritik kanpora.

*Viajes recurrentes son los realizados por estudiantes y/o trabajadores que viajan de lunes a viernes a un municipio distinto al de residencia.*

Inguruko autonomia-erkidego horiek asteburuko bidaien norakoak dira nagusiki. Horrela, euskal herritarrek egiten dituzten bidaien norako nagusiak dira Nafarroa (% 80), Kantabria (% 86) eta Errioxa (% 87).

Norako espezializatu gisa sailka dai-tezkeen beste autonomia-erkidego batzuk –udako oporretako bidaien norako gisa kasu honetan– Katalunia eta Valen-tziako Erkidegoa dira. Horrela, euskal her-ritarrek udako oporrak direla eta egiten dituzten bidaien artetik % 44 eta % 48, hurrenez hurren, erkidego horietara egi-ten dira.


Gaztela eta Leonek gero eta garrantzi handiagoa du norako gisa, batez ere aste-buruko bidaiari erreparatzen bazaie (% 63), eta garrantzi handia du, halaber, udako oporretan egiten diren bidaiari erreparatzen bazaie (% 16). Hala ere, are garrantzi han-diagoa du Euskadik, izan ere, EAE jatorria-norakoa fluxuen artetik % 53 asteburuko bidaiak dira, % 14 ikasketek eragindako bidaiak, % 53 asteburuko bidaiak, % 11 senideak eta lagunak bisitatzeko bidaiak eta % 10 lanak eragindakoak.

*Estas CC.AA. próximas son principal-mente destinos de fin de semana ya que éstos representan el 80% (Navarra), el 86% (Cantabria) y el 87% (La Rioja) de todos los viajes que reciben estas CC.AA. de ciudadanos vascos.*

*Otras CC.AA. que también pueden ser calificadas como destinos especializa-dos –pero en este caso para las vaca-ciones de verano– son Cataluña y la Co-munidad Valenciana ya que de los viajes que la ciudadanía vasca realiza a esas destinos el 44% y 48% respectivamen-te son por vacaciones de verano.*

*Castilla-León amplía su condición de destino, con relevancia para viajes de fin de semana (63%) y también para vacaciones de verano (16%) pero to-davía lo hace más Euskadi ya que de los flujos origen-destino País Vasco, un 53% son de fin de semana, un 14%, viajes recurrentes de estudios, un 11% por visita a familiares y amigos y un 10%, recurrentes de trabajo.*

Euskal herritarrek egindako bidaien xede-erkidegoa. 2010  
 CC.AA. de destino de los viajes realizados por los vascos. 2010



Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). I.E.T.

## Bidaien iraupena

### Duración de los viajes

2010ean euskal herritarrek egindako bidaien % 65 bidaia laburrak izan dira eta horietatik gehiengoa (% 85) asteburuetan eta zubietan egin dira.

*El 65% de los viajes que realizó en 2010 la población vasca fueron viajes cortos entre los cuales, una amplia mayoría (85%) corresponden a los viajes de fin de semana y puentes.*

2010ean EAEko biztanleek egindako bidaien % 65 etxetik kanpora hiru gaualdi baino gehiago barne hartzen ez dituzten bidaiak izan dira eta, hortaz, Familitur-en arabera, iraupen laburreko bidaiak dira. Gainontzeko % 35 bidai luzeak izan dira. Estatuan bidai laburren eta luzeen arteko segmentazioa % 66-%34 da.

2009ko datuekin alderatuz, Euskadin bidai luze gutxiago erregistratu dira (-% 6,5) eta Estatuan, aitzitik, ugaritu egin dira (+% 1,5).

Iraupen laburreko bidaien artean sartzen dira asteburuetan eta zubietan egiten diren bidaiak. Hain zuzen ere, egindako bidai guztien % 56 dira, baina, horietatik % 85 iraupen laburreko bidaiak izan dira.

Bidai luzeen artean azpimarratzekoak dira, duten garrantziagatik, udako oporrrak direla eta egiten direnak (% 47) –gaualdi gehien erregistratzen dira (% 44)– eta aisialdia dela eta egiten direnak (% 19). Bidai luzeen artean ikasketak direla eta egiten diren bidai errepikariak azpimarratu behar dira, halaber (% 8).

Bidai luzeen barruan, erdia baino zerbait gehiago (% 52) 4-7 egun arteko iraupena duten bidaiak dira, % 31 8-15 egun artean irauten dute eta gainontzeko % 17 15 egun baino gehiago irauten duten bidaiak dira.

*En 2010, el 65% de los viajes que realizaron los residentes en el País Vasco fueron viajes que no superaron las tres pernoctaciones fuera de casa y, por tanto, considerados por Familitur como viajes de corta duración, mientras el 35% restante fueron viajes largos. En el Estado, la segmentación entre viajes cortos y largos es de 66%-34%.*


*Comparando con 2009, la realización de viajes largos ha disminuido en Euskadi (-6,5%) mientras en el Estado aumentan ligeramente (+1,5%).*

*Entre los viajes de corta duración se incluyen todos los de fin de semana y puentes que, como se recordará, suponen el 56% de todos los viajes realizados pero el 85% de los considerados de corta duración.*

*Entre los viajes largos destacan por su importancia los viajes por vacaciones de verano (47%) –que son los más prolíficos en pernoctaciones (44%)– así como otros viajes por ocio (19%). Otros viajes largos son los recurrentes por estudios (8%).*

*Dentro de los viajes largos, algo más de la mitad (52%) duran entre 4 y 7 días, otro 31% entre 8 y 15 días y el 17% restante se prolongan más allá de 15 días.*

Egindako bidaien banaketa iraupenaren arabera. 2010. (%). Euskadi eta Estatu  
Distribución de los viajes realizados según duración. 2010 (%). Euskadi y Estado



Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) I.E.T. 2010.

Egindako bidaien banaketa egonaldiaren iraupenaren eta antolamendu-motaren arabera. 2009-2010. (%). Euskadi eta Estatua

Distribución de los viajes realizados según duración de la estancia y forma de organización. 2009-2010 (%). Euskadi y Estado

	Egindako bidaiak bizi den lekuaren arabera/ Viajes realizados por residentes en:			
	Euskadi		Estatua/Estado	
	2009	2010	2009	2010
<b>Egindakoak guztira/Total realizados</b>	<b>8.276.987</b>	<b>8.465.478</b>	<b>171.719.579</b>	<b>162.213.918</b>
<b>Banaketa egonaldiaren iraupenaren arabera (%) / Distribución según duración de la estancia (%)</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Iraupen laburra/Corta duración	62,9	65,3	66,2	65,7
Iraupen luzea/Larga duración	37,1	34,7	33,8	34,3
<b>Iraupen luzeko bidaien banaketa iraupenaren arabera (%) / Distribución viajes larga duración según duración (%):</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
4-7 egun bitartean/4 a 7 días	56,5	52,1	63,8	62,9
8-15 egun bitartean/8 a 15 días	29,0	31,0	23,6	24,1
15 egun baino gehiago/Más de 15 días	14,5	16,8	12,6	13,0
<b>Batez besteko egonaldia/ Estancia media</b>	<b>2,2</b>	<b>5,1</b>	<b>4,6</b>	<b>4,7</b>
<b>Banaketa antolamendu-moduaren arabera (%) / Distribución según forma de organización (%):</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Erreserbekin/Con reserva	26,2	25,6	20,8	23,5
Erreserbarik gabe/Sin reserva	73,7	74,4	79,0	76,3
Ed/Ee/Ns/nc	–	–	0,2	0,2
<b>Interneten erabilera (baiezko erantzunen %) / Uso de Internet (% respuestas afirmativas):</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Internet erabiltzen du/Lo usa	23,4	24,0	21,9	24,3
• informazioa bilatzeko/para buscar información	22,5	23,3	21,0	23,1
• erreserba egiteko/para hacer una reserva	15,6	17,0	15,5	17,4
• azken ordainketa egiteko/ para efectuar el pago final	8,1	10,4	8,8	9,5
Ez du erabiltzen/ No lo usa	76,6	76,0	78,1	75,7

Iturria/Fuente: Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). 2009-2010.

Batez besteko egonaldiari dagokionez, 2010ean 5,1 gaualdiko batez bestekoa lortu da, beraz, aurtengoan ere Estatuko batez bestekoa (4,6) gainditu da.

Bidaiatzeko modu hedatuena alde aurretik erreserbarik egin gabe bidaiatzea da (% 74), eta Interneten erabilerari dagokionez, Familitur-en arabera, euskal herritarren % 76k ez dute erabiltzen bidaiatzeko eta % 24k Internet erabiltzen dute. Informazioa bilatzeko (% 23), erreserba bat egiteko (% 17) edo azken ordainketa egiteko (% 10) erabiltzen da, gehien bat, Internet.

*En términos de estancia media, el promedio resultante en 2010 es de 5,1 noches superando un año más el promedio estatal (4,6).*

*La forma más extendida es viajar sin hacer ninguna reserva previa (74%) y en relación al uso de Internet, según Familitur, el 76% de los ciudadanos vascos no la utilizan para sus viajes mientras otro 24% sí lo hace. Buscar información (23%), hacer una reserva (17%) o efectuar el pago final (10%) son las aplicaciones reconocidas.*

Bidaien % 26an bakarrik egin da alde aurretik erreserba, baina, proportzio horrek gora egiten du (% 43) bidai luzeen kasuan.

*Aunque sólo el 26% de los viajes se realiza previa reserva, la proporción aumenta al 43% cuando son viajes largos.*



Bidaiatzeko arrazoiak aztertzeko, Familitur-ek bi multzo zabal bereizten ditu: arrazoi pertsonalak eta lanarekin/negozioekin erlazionatutakoak.

2010ean euskal herritarrek egindako bidaien % 95 arrazoi pertsonalek eragindako bidaiak izan dira eta gainontzeko % 5 bakarrik izan dira lanak/negozioek eragindakoak, hortaz, beherakada handia ezagutu da azken bidaien kasuan, izan ere, 2009an bidaia guztien % 12 ziren.

Estatuan ere arrazoi pertsonalek eragindako bidaiak dira nagusi (% 90), baina, EAEREkin alderatuz, agerpen handiagoa dute lanak/negozioek eragindako bidaiak (% 10), nahiz eta oraingo honetan gutxiago izan diren (% 15 2009an).

Bigarren maila batean, Familitur-ek arrazoi pertsonalak aztertzen ditu eta ikasketak, senideak eta lagunak bisitatzea, aisialdia/oporrak eta hainbat arrazoi bereizten dira. Osasun-tratamenduek edo arrazoi erlijiosoek eragindako bidaiak ez dute garrantzirik estatistikaren ikuspegitik.

Bidaiatzeko lehen arrazoia aisialdia/oporrak dira, nabarmen. 2010ean bidaien ia % 64ra iritsi dira (% 54 Estatuan) eta, gainera, 2009an baino gehiago izan dira (% 58 ziren 2009an).

Bigarren arrazoia senideak eta lagunak bisitatzea da: bidaia guztiekiko % 27ko kuota lortu dute, Estatukoaren antzekoa.

*El análisis de los motivos por los que se viaja lo hace Familitur segmentándolos en dos grandes grupos: personales y de trabajo/negocios.*

*En 2010, el 95% de los desplazamientos de los vascos se han hecho por motivos personales y sólo el 5% restante por trabajo/negocios, lo que supone un importante descenso de éstos últimos que, en 2009, representaban el 12% del total.*

